

Aieriko lur-eremu etxebizitzak zertarako?

Aieriko lurretan etxebizitzak eraikitzearen proiektua, biziki eztabaidatua izaten ari da Ondarroako herrian. Ondarroako udalean garai batean zinegotzi izan zirenek eta egun zinegotzi diren ezker abertzaleko kideek, beraien testigantza eman nahi dute dokumentu honen bidez. Horrela, historiari momentu batean erreparatuz, hobeto ulertuko dugu lur-eremu honen inguruan egin diren gestioak eta hauek burutzeko arrazoiak.



● AIERIKO LUR-EREMUAK ONDARROAKO HIRIBILDUAREN LURRALDEARI GEHITZEA LORTZEKO GESTIOAK (1979-1984)

Lur-eremu horiek betidanik Berriatuko udalerriarenak izan dira, frankismoaren garaian izan ezik, 1969. urtean, Ondarroako Udalak Berriatuko Udala lotsagabeki irentsi zizkion arte.

1979ko Udal hauteskundearen ondoren, Ondarroako Udala PNV, HB, eta LKI alderdi politikoen hautetsiekin osatu zen. 10 zinegotzi PNVkoak, bost HBkoak, bi LKIkoak. Legealdi hartan, Ondarroako Udalak esku artean izan zituen arazoaren artean, Berriatuko herri nortasuna itzultzea izan zen gairik garrantzitsuenak. Momentu hartan, PNV berak, bere hamar zinegotzien artean lau berrituar zituen, Berriatuko desanexioa lortzeko gestioak bultzatzeko, hain zuzen ere.

Izan ere, Ondarroako Udala osatzen zuten alderdi politiko guztiak ados zeuden frankismo garaian eginiko injustizia berehala bideratu behar zela, Berriatuko herriari udalerri izaera itzuliz, bere lur eremu eta guzti.

Berriatua eta Ondarroa arteko mugak erabakitzeko orduan, lehengo mugak onartzea zen biderik zuzenena eta errazena. Baina Berriatuko Herri Batzordea ("Consejo Rector de Berriatua" delakoa) bera ere ohartu zen hau ezinezkoa zela. Izan ere, Zubi Barriaren bestaldera, Berriatuko Madalena auzoan, hain zuzen, zenbait etxebizitza jada eraikita zeuden, gaur egungo Ondarroako Madalena eta San Juan Txurru ka-

leetako etxebizitzak, alegia. Berriatuko udalerriaren lur-eremuetan eraikita egon arren, etxebizitza hauek Ondarroaz erabat lotuta zeuden: ur eta beste zerbitzu batzuk Ondarroako udalak ematen zizkieten, umeak ere Ondarroako eskolara bidaltzen zituzten etab. Azken batean Madalenen eraikitako auzo berri hura, Ondarroaren jarraipen bat besterik ez zen, eraikuntzaz zein bizimoduaz.

Egoera anormal hura bideratzeko asmoz, berriatuarrek euren Madalena lurrak eta bertako etxebizitzak Ondarroako udalerriaren mugetan gelditzea proposatu zuten.

Muga historikoak aldatzeko berriatuarrek agertu zuten jarraera eta eginiko eskariak, Ondarroaren etorkizuna aztertzea eraman gintuen herritar asko. Izan ere, inola ere ez genuen nahi, urte batzuk geroago, berriz ere beste toki baten gertatzea Madalena auzoan gertatua.

Beraz, Aieriko lur-eremuei begira jarri ginen. Alde batetik, gaur egun ditugun aurrerapen teknikorik ez zegoen orduan. Ondorioz, lurzoru lauak behar ziran etxebizitzak eraikitzeko. Bestetik, Anbulategira eta Zubi Zahar ikastolara iristen zen kale berria ere Artibai ibaiaren beste alderaino luzatzea ere aurreratu zen zubi barri baten bidez.

Aieriko lur-eremuak, Ondarroako udalerriari uztea luzaro eztabaidatu zen Ondarroako Udal bileretan. Azkenean, garai hartan Ondarroako Udala osatzen zuten PNV, HB eta LKI alderdiak ados jarri ziren Aieriko lur-eremuak Ondarroa udalerriarentzat uzteko desanexioa egiteko orduan. **Baina beti ere, etxebizitza gehiago eraikitzeko beharra balego, eta Aieriko padura gordez eta zainduz.**

Proposamen hau, garai hartan berriatuarrek antolatuta zeukaten Herri Batzordeari ere jakinarazi zitzaion, herri bien arteko adostasunaz aurrera eramatea nahi zen eta. Egia esan, ondarrutarren proposamena ez zen ondo ikusia izan berrituarren artean, hasiera baten behintzat. Batzuen eta beste artean harremanak luze joan ziren. Giroa ere zaildu egin zen une batzuetan.

Batzar berezi bat deitu zen Berriatuko udaletxean gai honi buruz eztabaidatzeko. Uste dugu 1982ko abuztuaren 19an izan zela. Berriatuko udaletxean bildu behar ginen Berriatuko Herri Batzordeko kideak



Udaletxearen eta frontoiaren argazkia, pelota partidu bat jokatzen zela.

eta Ondarroako zinegotzi ondarrutarrak. Han ginen, HBko eta LKlko zenbait zinegotzi. PNV-k ere bidali zuen Maria Luz Burgoa zinegotzia, baina Felix Aranbarri alkatea ez zen agertu ere egin.

Batzar hartan denetik entzun behar izan genuen Berriatuko Herri Batzordeko kide batzuen ahotik. Hainbeste hitz gogor eta irainen artean “ondarrutarrok Franco bera baino diktadore handiagoak ginela” ere aurpegira jaurti ziguten. Honelako astakeriak entzun behar izan genituen han ginen ondarrutar zinegotziok. Batzuok 1936ko gerra garaian Francoren errepresioa (Ondasun inkautazio eta erbesteratzeak) sufritu behar izan genuenak ginen, beste batzuek Frankismoaren urterik beltzenetan tortura eta espetxea bizi izan zuten.

Hala eta guztiz ere ondarrutar zinegotziok denboraleari brankaz eutsi genion, eta ondarrutarren eskabidea eta honen zergatia behin eta berriz azaldu genien Berriatuko ordezkariak.

Azkenean, Ondarroaren eskabideari ateak irekitzea lortu genuen. 1982-11-23n idatzi bat sinatu zuten Ondarroako udala osatzen zuten PNV, HB eta LKlko hiru ordezkariak eta Berriatuko Herri Batzordeari igorri zitzaion.

Handik egun gutxira, berriatuarrek Herri Batzar irekian bildu eta Ondarroako Udalak igorritako idatzia aztertu ondoren, berriatuarren gehiengo handi batek onartu zuen ondarrutarron eskaria. Hona hemen papeleta bidez eginitako botazio haren emaitzak: 198 boto Ondarroako Udalaren eskaria onartzearen alde, 21 boto kontra eta lau abstentzio.

Herri Batzarraren erabaki hau kontuan hartuz, Berriatuko Herri Batzordeak 1982-12-03an egin zuen bilera berezian aho batez onartu zen Ondarroako Udalaren eskaria eta horrela Ondarroak Aieriko lurak eskuratu zituen.

Hau da Aieriko lur-eremua Ondarroa udalerriri anexionatuta geratu zenaren historia, laburki esanda.

Honen guztionen lekuko gara, garai hartan Ondarroako zinegotzi izan ginen eta hemen behean sinatzen dugunok.

*Josu Arrizabalaga Badiola
Jose Luis Bedialauneta Gallardo.
Txomin Letamendi Urresti
Imanol Oruemazaga Baseta.*



Padura bere osotasunean, Ibaiondoko etxeak eta ikastola egin aurretik

● AIERIKO LUR-EREMUAN ETXEBIZITZA SOZIALAK ERAIKITZEKO PROIEKTUAREN GORA-BEHERAK (1984-19....)

Aieriko lur-eremuak Ondarroa udalerriari anexionatzeko eta kalifikatzeko gestioetan parte hartze zuzena izan genuenez, une historiko honetan gure iritzia ematera behartuta sentitzen gera.

Bada herritarrik esaten ari denik Aieriko lur-eremua etxebizitzak eraikitzeke anexionatu zela Ondarroako udalerriari. Are gehiago, Herri Batasuna bera ere urte haietan Aieriko lur-eremuan etxebizitzak eraikitzearen alde agertu zela.

Honetaz, xehetasun hauek eskaini nahi dizkizuegu ondarrutar guztioi 1984. urtean Aieriko lur-eremua Ondarroa hiribilduaren lurraldeari gehitu zitzaionetik.

Ondarroako HERRI BATASUNA eta LKI alderdi politikoek jarrera eta lanak Ondarroako Udalean Aieriko lur-eremuari buruz

Egia da 1979-1983 eta hurrengo udal agintaldietan, Ondarroako Herri Batasunak -batez ere Herri Batasunak Ondarroako alkate izan zuen urteetan- buru-belarri jardun zuela Aieriko lur-eremuan etxebizitzak eraikitzeke beharrezko ziren baldintza legalak betetzen.

Ondarroan beti izan dugu etxebizitzak egiteko lurralde arazoa; alde batetik mendiari lekua kendu beharra daukagu eta bestetik ura (ibaia eta itsasoa) errespetatzea. Beraz leku gutxi geratzen da jokatzeko!

Aieriko lurrak, aukera ona ziren epe luzera Ondarroako herriaren hazkunde demografikoari aurre egiteko, batez ere etxebizitza sozialak eginez.

Bide horretan, Udalak ahalegin berezia egin zuen Aieriko inguruko baserritar eta lurjabeei hitzarmen bat proposatuz. Hitzarmen hau adosteko Udalak bi bilera egin behar izan zituen bertoko lurjabeekin. Akordio honek, ondorengo bi ildo nagusi zituen:

- Udalaren konpromisoa: ondoren prestatu behar ziren arau subsidiarioetan, Aieriko lur-urbano bezala izendatzeko ekimen berezia egitea.
- Lur-jabeen konpromisoa: izendatzea gauzatu ondoren lurjabeek Udalari, lurren %30eko zesia egitea (gogoratu behar da, orduko garaian, promotoreek eta etxegileek, Udalari luraren %15eko zesia egin beharra izaten zutela).

Eta akordioa lortzeko ia prest zegoen unean, promotore pribatuen interesek bultzatutako azpijokoak, hitzarmenaren bidea, pikutara eramanez.

Ondorengo egin beharra, Arau subsidiarioetan, Aieriko lurra kalifikatzea izan zen... lan galanta!

Lan honek nagusiki arazo hauek izan zituen:

- Izendatzearen azken onarpena emateko arduraren zehaztea: Foru Aldundia edo Gasteizeko Gobernua. Honek asko atzeratu zuen lana. Bien arteko zubi lanetan hainbat bilera egin genituen eta bitarte horretan Madrilgo "Costas"ekin ere. Azkenean, Foru Aldundia berretsi zen Arau subsidiarioak aztertu eta erabakitzeke eskuduntzaduna.
- Lurrak kalifikatzeko unean erabili beharreko irizpideak finkatzea (herriari zer komeni zitzaion aztertu eta hau gauzatzea posible izango ote zen erabakitzea). "Urbano" izendatzea komeni zitzaigun, era honetara "Costas" izeneko legearen aplikazioa murriztagoa izango zen eta eraikitzeke aukera handiago izango litzaiteke.

Azkenean, hainbat eta hainbat kudeatze lan egin ondoren, Aieriko lurrak **urbano** bezala kalifikatuak izan ziren.



**Ondarroako portuan txalopak,
80.hamarkadan
1984 argazkia**

Garai hartako Ondarroko demografiaren eta ekonomiaren ezaugarriak

- Kontutan izan behar dugu, garai haietan etxebizitza berrien behar larria zegoela Ondarroan. Herriko **biztanle kopurua gorantz zihoan urtez urte**. Horrela adierazten digu Ondarroako udal patroitik jasotako datuekin osotu dugun hurrengo laukiak:

Ondarroako biztanleria

URTEA	BIZTANLEAK
1955	6.792
1956	7.051
1964	8.103
1969	9.217
1973	10.452*
1985	11.743**

* Ondarroak Berriatua anexionatu zuen aurreko urtea
** Berriatua Ondarroatik desanexionatu eta hurrengo urtea

- Arrantzaren urte oparoak ziren urte haiek. Hurrengo bi laukietan, -ikus 2. eta 3. laukiak-, bildu ditugun Ondarroako txalupetan lanean ari ziren arrantzale kopuru, Ondarroako portuan deskargatu zuten arrain kopurua eta salmentaren etekina:

Ondarroako arrantza ontziak eta marinel kopurua urteka

URTEA	ARRANTZA ONTZIAK		MARINELAK
	BAXURAKOAK	ALTURAKOAK	
1939	71	1	1.149
1949	84	54	2.031
1959	77	85	2.512
1969	76	91	2.630
1981	115	78	2.407

Arrain salmentak kiloka eta pezetaka

URTEA	KILOAK	PEZETAK
1943	4.392.305	11.331.765
1949	3.061.072	12.720.924
1959	17.329.348	154.389.587
1969	16.331.942	339.876.120
1979	24.748.900	1.520.500.000

- Bestetik, etxebizitzak eraikitze gaur egunean eza gutzen dugun tresneriarik ez zegoen garai hartan. Beraz, **lurzoru lauak behar ziren etxebizitzak eraikitze**. Horregatik, Aieriko lur-eremuari begira jarri ginen ondarrutar denok. Baita Herri Batasuna bera ere. Hori bai, **beti Aieriko padura zainduz**.

Handik urte batzuetara **eraikuntza arloan ere aurrerakuntza nabarmenak iritsi ziren Ondarroara ere**. Gogoan izango duzue nola ondarrutarrok, aho zabalik begira egoten ginen Antsozolo eta Txorierreka bitartean dagoen mendiari. Orduan ikusi genuen ondarrutarrok lehen aldiz mendi baten desmontea goitik behera egiten.

Herri Batasuna ez zen itsutu Aieriko lur-eremuan etxebizitzak eraikitze proiektuarekin. Ez ohiko desmonteak egiteko zegoen aukera berriekin jabetuz, Iñaki Deuna kalean baztertuta zegoen mendiari begira jarri zen. Toki horretan desmontea eginaz, aukera bi esku-eskuan izango zituen Ondarroak: batetik, irtenbide egoki bat emango zitzaion Kamiñalde kaleko zirkulazioari, bide zabal eta berri bat eginez. Bestetik, bide berri honen eta Iñaki Deuna kalearen bitartean etxebizitzak eraikitzeko lurzoru eder bat geldituko zen.

1999/2003 agintealdian, Ondarroako Batasunak alkate-tza lortu zuenean, Kamiñalde kalearen irteera berriaren eta Iñaki Deuna kaleko etxebizitza berrien -hauen artean etxebizitza sozialak ere- proiektua aurkeztu eta indar guztiekin bultzatu zuen.

Gaur egun hor daude Iñaki Deuna kalean 72 etxebizitza berriak.



1984, txalopa baten inguruan bilduriko jendetza

Azken aldian Ondarroako jasan dituen al-daketa nabarmenak

Ondarroako herriaren biztanleriaren beherakadak gel-diezina dela dirudi:

Biztanleriaren bilakaera

URTEA	BIZTANLEAK
1985	11.743
1990	10.983
1995	10.517
2000	9.930
2005	9.455
2009	8.974

- Biztanlegoaren beherakada honek bere eragina izan zuen Ondarroako Udal Agintariengan ere. Ordura arte, hainbat urtetan, alkatea eta 16 zinegotzi izan zuzen Ondarroako Udalak. 2003. urteaz geroztik, aldiz, alkatea eta 12 zinegotzi izan ditugu.

- Nabarmena dugu Ondarroako ogibide nagusia izan den -ia bakarra ez esatearren- **arrantzaren beherakada**, segidan eskaintzen ditugun 5. eta 6. taulek adierazten digutenez.

Arrantza ontzien eta marinelen kopuruaren bilakaera

URTEA	ARRANTZA ONTZIAK		MARINELAK
	BAXURAKOAK	ALTURAKOAK	
1989	22	86	1.586
2006	9	43	609
2008	8	-	73
2009	-	34	440
2010	8	34	513

Hona hemen azken 20 urteetan Ondarroan arrantzak jasan duen beherakada kezkagarrriaren laburpena:

- a) 52 arrantza-ontzi eta 864 lan postu galdu dira alturako arrantzan.
- b) Beste 14 arrantza-ontzi eta 209 lan postu baxurako arrantzan.

Arrain salmentak kilotan eta pezetetan

URTEA	KILOAK	PEZETAK
1979	24.748.900	1.520.500.000
1984	13.132.511	2.517.084.000
1989	14.589.070	3.242.713.000
1994	17.740.860	4.001.659.000
1998	16.341.677	2.637.036.000



Zaldunbide eta Antzosoloko desmonteak

- Zer esan azken urte hauetan Ondarroan egin diren **desmonteetaz** eta hauen bidez etxebizitzak eraikitzeko lortu diren lurzoruetaz? Saihesbidean, Zubi Barriaren ondoan.... etxebizitzak iragartzen zaizkigu. Beste hainbat etxebizitza Antzosolon. Antzosoloko desmonteaz, hain zuzen, zenbat urte daramatza desmonte horrek etxebizitzarik eraiki gabe?

- Are gehiago, zer adierazten digute Ondarroako hainbat etxebizitzetako leiho eta balkoietan ikusten diren SALGAI karteltxoek? Banaka-banaka ez ditugu zenbatu Ondarroan hutsik dauden etxebizitzak... Baina, zer uste duzu? Ondarroan gaur egun **500 etxebizitza hutsik** daudela esan eta esan ari diren herritarren kalkulak gazte zoro batzuen asmakizunak besterik ez direla?

- Azkenik, badago beste puntu bat nahitaez azaldu nahi duguna. Nolabaiteko autokritika ere eginaz. Halaber, gorago, argi eta garbi azaldu dugu hasiera-hasieratik gure konpromezua izan dela **Aieriko padura zaintzea**. Gaur egun ere konpromezu berari irmo eusten diogu.

Baina, egia esateko, "Aieriko padura zaintzea" k ez zeukan esangura eta betebeharrak berdinak guran duela 30 urte eta gaur egun. Ekologista mugimenduari esker oro-

korki, eta Eguzki Taldeak Ondarroan egin duen lan eskerari esker, ohartzen gera gaur egun Aieriko padura zaintzeko bide bakarra **egun daukagun padura bere horretan zaintzea dela**. Eta honela eskatzen dugu garai bateko Herri Batasuna eta LKiko kide izan ginen eta gaur egun Ezker Abertzaleko kide garen eta hemen behean sinatzen dugunok.

EZ DEZAGUN HONDATU ETA UTZ DIEZAIEGUN ERRESERBAN GEROKO ONDARRUTARREI AIERIKO LUREREMUA, ONDARROAK DAUKAN ONDARE PREZIATUA BAITA!

Ondarroan, 2010eko urrian.

Loren Arkotxa Meabebasterretxea.

Fernando Agirre Aramaio.

Josu Arrizabalaga Badiola.

Jose Luis Bedialauneta Gallardo.

Txomin Letamendi Urresti.

Imanol Oruemazaga Baseta.

● AIERI: BILAKAERA GAUR EGUNGO EGOERARTE

Plana berezia egiten dituen ezaugarriak edo Berezitasunak dituen Plana

Ondarroako herriaren lurzoruaren baitan, etxebizitzak eraikitzen diren eremu guztien artean, Aierikoa dugu eremurik garrantzitsuen eta bereziaren ez bairik gabe, bai hedaduraz handiena delako eta baita ingurumen bali handiko baldintzak dituelako. Horregatik, egungo garapen ereduaren baitan talka handiena duten bi faktore nagusiak aurkitzen dira aurrez-aurre bertan: hirigintza eta ingurumena eremu berberaren baitan. Bata edo bestea, zein lehenetsi da, beraz, eztabaida. Horretarako derrigorrezkoa da ikuspegi bakoitzak aurkeztu dituen beharren azterketa zehatz, sakon eta garden bat egitea, edozein erabaki zentzu batean edo bestean hartu aurretik, eta ez momentuan momentuko "koiuntura" edo interesen arabera jokatzeko.

Bai EAEko Hezeguneen Arlokako Planak eta baita Europako Natura 2000 Sareak ere, balio handiko hezegune aitortu dute Aieri. Euskal Herriko itsasertzean hezeguneak gutxi dira eta gainera oso murriztuak daude XX. mendeko giza-presio "urbanistikoa"-ren eraginez. Ekosistema mota hau, desagertzeko arriskuan dauden

hainbat espezieen bizileku dugu eta horien artean ezagunena bisoia europarra dugu.

Hezegunearen funtzio ekologikoa ez da bizitoki izatera mugatzen, baizik eta hiri garapenerako arriskutsuak diren uholde arriskuen aurrean, ur emari erregulatzaile funtzio garrantzitsua ere betetzen du.

Aieriko gunea 1993ko Arau Subsidiarioetan hiri lurzoru izendatu zenetik (nahiz eta 1997 urterarte ez zen izan behin betikoz onartua), Ondarroako herri barruan 300 bat etxebizitza berri eraiki edo bideratu dira horretarako egin dako hainbat Arau aldaketen bidez. Ezker abertzaleak bultzatutakoa dugu 164 etxebizitzetatik erdiak babese-koak diren Kamiñalde-Iturribarriko proiektua, PNVk behin eta berriz azaldutako kontrako iritzia gaineratzen. Hain zuzen ere, etxebizitza babestu eta tasatu hauek dira Ondarroan azken 15 urteotan garatutako bakarrak.

Egun 500 inguru etxebizitza huts daukagu herrian bertan, horietatik 40 Udalaren esku daudelarik Kamiñalde-Iturribarrin, eta ehundik gora eraikitzeke Antzosolo, Zaldunbide edo eta Kamiñazpin, adibide batzuk aipatzearen.

Ezin da albo batera utzi, Ondarroako jarduera nagusia den arrantzaren gainbeheraren eraginez, azken bi hamarkadetan herriko erroldan izan dugun %20ko behe-rakada, ia 11.000 biztanle izatetik 9.000 baino gutxiago izatera pasa gara.

Hau guztia kontutan izanda, ezin da inola ere justifika-tu, eta are gutxiago ulertu, zergatik diharduten hain te-mati PNVko udal ordezkari eta Gestorakoek Ondarroan geratzen den azken hezegune eremua eta landa lur lau bakarra hiritartzeko asmoz.

Gauzak horrela, 2007ko apirilean udal hauteskunde ata-ritan, PNVk Aitor Maruri alkate zuela, Aierirako Plan Be-reziaren Aurrerapena onartu zuen, ez informazio ez eta eztabaidarako aukera izpirik eman gabe, propaganda hu-tsera mugatuz. Ezker abertzaleak ondarrutarren artean Aierin etxebizitzak eraikitzearen aukeraren inguruko he-rri inkestaren emaitzetan zera jaso zuen: eremua, etxe-bizitza sozialen lur erreserba izaerari eutsiz, eraiki gabe ustea eta soilik beharrezko izatekotan garatzea. Hauxe da herri programan jarri zutena.

Apartheid politikoaren ondoriozko bigarren udal hau-teskunde ez-demokratikoen ondoren, Ondarroako he-rriak emandako hitza eta erabakiaren kontra, PNVk egungo udal Gestora osatu zuen, eta hauek Aieriko 500 etxebizitza gauzatzea ikur beraien ikur nagusi izendatu zuten.

Bitartean, Plan Bereziaren Aurrerapenari hainbat talde eko-logistek ezarritako alegazio eta salaketei inongo jaramonik eta erantzunik eman gabe, aurrera jarraitu zuen Gesto-rak Plana gauzatzeko asmoekin. Eta horrela egin zuten 2009ko apirilean herritik kanpo egindako plenoan: Plan Bereziari hasierako onarpena eman ondoren jendaurre-an jarri zuten, herritarrentzako parte hartzeko aukera ba-kar bezala alegazioak jartzeko aukera soila utziz; baina alegazio hauek alferrikakoak izan ziren, Gestorakoek “zaz-pi bakarrik” tartekatu zirela arbuia-tuz, mespretxuz eta han-dikeriaz baztertu zituzten. Gogoratu dezagun, ordurako Alde Zaharreko Plan Bereziaren aurkako 2.600 alegazio ere jasoak zituztela.

Aurtengo apirilean plana behin betikoz onartu ostean, bes-telako aukerarik gabe, epaitegietara jotzera behartuak izan dira herriko talde eta eragileak beraien salaketa eta es-kaerak entzunarazteko. Eta bai entzun ere, epaitegian ale-gazio eta salaketetan behin eta berriz adierazitakoei ja-ramon eginez, **Plan Berezia badaezpadako ete-naldian ezartzea erabaki baita azken epaia eman bitartean.**

Epaia argi utzi du alde batetik, PNV-k bai alkatetzan ze-goenean eta baita orain ere Gestoraren bitartez, Aieriko eremuan ikaragarritzko espekulazio eta eraikuntza garapen aukera galtzen usteko ez daudela prest inondik inora ere. PNV-koek bazekiten Ondarroako Arau Subsidiarioak, Aie-riko padura eta bere inguruak babesten dituen EAEko Ar-lokako Planera egokitzeko 3 urteko epea 2007an buka-tzen zela. Zentzu horretan inolako pausorik eman ez iza-nak, eta gainera arauak berak automatikoki berrikuste-ko 8 urteko epea jada 2005ean beteta, Gestorakoek har-tutako erabakien larritasuna eta arduragabekeria naba-ri uzten dute.

Bestalde, argi geratu da, Ondarroan jasangaitza dela PNV-ren eredu “desarrollista”, espekulatzaila eta herriari biz-karra emanez egindakoa. Beraien eskutik herrian egin-dako etxebizitza proiektu guztietan 0 etxebizitza babestu edo sozial bultzatu dituzte, are larriago, ezker abertza-lea bultzatzen saiatu edo gauzatu dituen proiektu guz-tien kontra azaldu da beti, Kamiñalde-Iturribarriko etxe-bizitzen kasuan bezala.

Horregatik, ez da sinesgarria PNVk bat-batean Aierin etxe-bizitza garapen ikaragarri honen bultzada herriaren be-harrei erantzuteko eman denik. Eraikuntzaren inguruan sortutako krisi ekonomikoaren “kaltetuak” izan diren eraikitzaile enpresa handien interesei erantzun beharrean aurkitzen dela da, benetan aitortu ezinezko arrazoia. Are nabariago, Aieriko Plan Bereziak aurreikusten dituen 85.000.000€tako kostua, diru iturri publikoen bidez gau-zatzeko asmoa dagoela kontutan izaten badugu.

ESPEKULAZIORIK EZ!!! AIERIKO PADURA ZAINDU DE-ZAGUN!!!

